

2.078/14. DEKRETUA

2014ko abuztuaren 15eko datarekin, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari orokorraren 2013ko uztailaren 30eko ebazpena argitaratu zen, **ekintzaileak sustatzeko laguntzen** deialdia dakarrena.

2014ko irailaren 23ko ebazpenaren bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari orokorrak Leioako Udalari eskumena ematen dio Entitate Laguntzaile gisa jarduteko ekintzaileak sustatzeko laguntzen deialdian eta Leioako Udalari gehienezko pertsona kopuruaren aholkularitza onartzen dio, baita honako taula honetako diru-laguntzen ordainketa eta kudeaketa ere:

EKINTZAILEAK SUSTATZEKO LAGUNTZAK	< 25 urte	< = 25 urte
Enpresa jarduera berriak abiaraztea	2.000 €-ko 5 laguntza	1.500 €-ko 4 laguntza
Enpresa ideia berriak	2.000 €-ko 16 laguntza	1.500 €-ko 4 laguntza

2014ko irailaren 26ko 1887. Alkatetza Dekretu bidez, tokiko ekintzailetza proiektuen markoaren barruan, ekintzaileak sustatzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzen dira, bi diru-laguntza ildorekin:

- **“Enpresa ideia”** garatzeko laguntzak, tokiko ekintzailetza proiektuen markoaren barruan.
- **“Enpresa jarduera berriak abiarazteko”** laguntzak, tokiko ekintzailetza proiektuen markoaren barruan.

Eskabideak aurkezteko epea igarota eta egoki ziren zuzenketak eginda, eman gabe geratu dira ondoko taulan zehazten diren laguntzak:

	ENPRESA IDEIA BERRIAK		JARDUERA BERRIAK ABIARAZTEA	
	<25 URTE	≥ 25 URTE	<25 URTE	≥ 25 URTE
AURREIKUSITAKO LAGUNTZAK	16	4	5	4
ESKABIDE KOPURUA	6	11	0	1
ONARTUTAKO ESKABIDE KOPURUA	5	9		1
UKATUTAKO ESKABIDE KOPURUA	1	2		0
EMANDAKO LAGUNTZAK	5	4	0	1
EMAN GABE GERATU DIREN LAGUNTZAK	11	0	5	3

Ondorioz, honen bitartez,

HAU XEDATZEN DUT

LEHENENIK: 25 urtetik beherakoentzako tokiko ekintzailletza proiektuen markoan, “**enpresa ideia**” garatzeko laguntzen ildoaren barruan, 2.000 euroko laguntza ematea honako pertsona hauei:

Zk.	25 URTETIK BEHERAKOEN ENPRESA IDEIA BERRIETARAKO LAGUNTZAK
1	A. F. A.
2	I. G. P.
3	S. A. M.
4	M. A. S. B.
5	A. G. E.

BIGARRENIK: 25 urtetik beherakoentzako tokiko ekintzailletza proiektuen markoan, “**enpresa ideia**” garatzeko laguntzen ildoaren barruan, A.T.A-ri diru-laguntza ukatzea laguntza hauen 11. oinarrian exijitzen diren baldintzak ez betetzearren.

HIRUGARRENIK: 25 urte edo gehiago dituztenentzako tokiko ekintzailletza proiektuen markoan, “**enpresa ideia**” garatzeko laguntzen ildoaren barruan, A.N.S.M.D eta

A.Y.C-ri diru-laguntza ukatzea laguntza hauen 3. oinarrian exijitzen diren baldintzak ez betetzearren.

LAUGARRENIK: 2014ko urruaren 24ko 12:00etarako, zozketa publikoa deitzea Leioako udaletxeko bilkura aretoan, 1.500 euroko 4 laguntza emateko **“enpresa ideia”** garatzeko laguntzen ildoaren barruan, 25 urte edo gehiagokoentzako tokiko ekintzailtza proiektuen markoan. Zozketa egingo da eman daitezkeen diru-laguntza baino eskatzaile gehiago daudelako.

BOSGARRENIK: goian aipatutako zozketarako, honako eskabide hauek onartzea:

Zk.	25 URTE EDO GEHIAGOKOEN ENPRESA IDEIA BERRIETARAKO LAGUNTZAK
1	R. F. D.
2	Y. L. A.
3	J. M. G. A.
4	A.R. F.
5	B.R.A.
6	L.U.B.
7	P.M.O.A.
8	J.H.O.
9	M.I.G.G.

SEIGARRENIK: **“enpresa jarduera berriak abiarazteko”** ildoaren barruan, 25 urte edo gehiagokoentzako tokiko ekintzailtza proiektuen markoan, 1.500 euroko diru-laguntza ematea I.L.B-ri.

ZAZPIGARRENIK: tokiko ekintzailtza proiektuen markoan, ekintzaileak sustatzeko laguntzen deialdi eta oinarri arautzaileen 11. oinarriaren aldaketa onartzea, hauekin lotutako deialdiei dagokienez:

- **25 urtetik beherakoentzako** tokiko ekintzailtza proiektuen markoan, **“enpresa ideia”** garatzeko laguntzak.
- **“Enpresa jarduera berriak abiarazteko”** laguntzak, **25 urtetik beherakoentzako** tokiko ekintzailtza proiektuen markoan
- **“Enpresa jarduera berriak abiarazteko”** laguntzak, **25 urte edo gehiagokoentzako** tokiko ekintzailtza proiektuen markoan.

Aldaketa zehaztu egiten da eskabideak aurkezteko epearen luzapenean, Dekretu hau argitaratzen den egunetik 2014ko urriaren 27ko 14:00 arte. Arrazoa da, tokiko ekintzailtza proiektuen markoan, ekintzaileak sustatzeko laguntzen oinarri arautzaile eta deialdian aurreikusitako laguntza guztiak ez direla eman.

25 urtetik beherakoentzako tokiko ekintzailtza proiektuen markoan, “**enpresa ideia**” garatzeko laguntzen ildoko onuradunak zehazteko, eskabideak aurreikusitako laguntzak baino gehiago badira, zozketa publikoa egingo da aurtengo urriaren 28ko 11:30ean, Leioako udaletxeko bilkura aretoan, han bertan azalduko den moduan.

Eskatzailearen bati baldintzaren bat betetzea falta zaiola egiaztatuko balitz, hori konpontzeko astia edukiko luke, 2014ko urriaren 29ko 12:00 arte.

Dekretu honek beren-beregi aldatzen ez duenerako, eta bertoko terminoak ezeztatzen ez duenerako, 1887. Alkatetza Dekretu bidez onartutako oinarriek indarrean jarraitzen dute.

ZORTZIGARRENIK: Leioako Udalaren web gunean (www.leioa.eu) eta Leioako Behargintzaren web gunean (www.leioako-behargintza.net), deialdiko oinarri arautzaileen eskabideetarako epearen luzapena argitaratzea, baita eskatzaileek bete beharreko agiriak ere.

BEDERATZIGARRENIK: eskabideak aurkezteko epe labur hau ezartzen da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari orokorraren 2014ko uztailaren 30eko ebazpeneko (ekintzaileak sustatzeko laguntzen deialdia argitaratzen duena) 4.2 artikulua dioenaren arabera, hau da, jarduerak, edozein kasutan, 2014ko urriaren 31 baino lehen hasi behar dutela.

Hori agindu eta sinatu zuen Alkate andreak, Mari Carmen Urbieta Gonzalez, bi mila eta hamalauko urriaren hogeita batean, eta horretaz guztiaz, nik, behin-behineko idazkaria, fede ematen dut.

ALKATEA,



Izpta.- M^a Carmen Urbieta González



BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,



Izpta.- Javier Bolinaga Lekue